

19/2021 Foru Agindua, otsailaren 17koa, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariarena, zeinaren bidez abiarazten baita Foru Dekretu baten proiektuaren lanketa Foru Dekretu hau aldatzeko: apirilaren 4ko 27/2011 Foru Dekretua, Nafarroako administrazio publikoetako langile funtzionarioen lanaldiaren murrizketa arautzen duena.

ZIOEN AZALPENA

Apirilaren 4ko 27/2011 Foru Dekretuak, Nafarroako administrazio publikoetako langile funtzionarioen lanaldiaren murrizketa arautzen duenak, 3. artikuluan finkatzen du lanaldiaren murrizketa zein kasutan ez dagoen zerbitzuaren beharren mende. 3. apartatuan ezartzen da genero indarkeriaren biktima diren emakumezko funtzionarioek eskubidea dutela lanaldia murrizteko egiaz babestuak izan daitezzen edota gizarte laguntza osoa izan dezaten.

Bestetik, apirilaren 4ko 27/2011 Foru Dekretuaren 9. artikulua lanaldi murriztuaren ordainsaria arautzen du eta ezartzen du lanaldi murrizketak berekin dakarrela funtzionarioaren ordainsari guztien murrizketa proportzionala, familia laguntzarena izan ezik. Artikulu berean arautzen da orobat lanaldi murriztuari dagozkion ordainsarien arabera kalkulatu direla kotizazio sozialak eta haiei dagozkien deskontuak.

Araudi horren arabera, ez dago inolako xedapenik genero indarkeriaren biktima diren emakumezko funtzionarioen lansari-erregimena berariaz arautzeko.

Hala ere, eta kontuan harturik Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 49. artikulua d) letran jasotako erregulazioa (haren azken paragrafoan ezartzen da emakumearen aurkako indarkeriaren biktima diren funtzionario emakumezkoek eskubidea dutela beren ordainsariak osorik jasotzeko lanaldia heren bat edo gutxiago murrizten dutenean), beharrezkotzat jotzen da apirilaren 4ko 27/2011 Foru Dekretua aldatzea, genero-indarkeriaren biktima diren Nafarroako administrazio publikoetako funtzionario emakumezkoek beren ordainsariak ez aldatzeko lanaldia heren bat edo gutxiago murrizten dutenean.

Martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legeak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzkoak, 132.1 artikuluan haxe xedatzen du ezen foru legeen aurreproiektuak eta foru dekretuen proiektuak prestatzeko prozedura arloaren arabera eskuduna den departamentuan abiaraziko dela, xedapen proposamenaren testua idatziz.

Horrenbestez, eta otsailaren 21eko 30/2005 Foru Dekretuaren bidez esleiturik ditudan eskudantziak erabiliz,

AGINTZEN DUT:

1. Foru dekretu honen proiektua prestatzeko prozedura abiaraztea: Foru Dekretua, zeinaren bidez aldatzen baita apirilaren 4ko 27/2011 Foru Dekretua, Nafarroako administrazio publikoetako langile funtzionarioen lanaldiaren murrizketa arautzen duena.

2. Honako zuzendaritza hau izendatzea proiektuaren prestaketaren eta prozedura horren organo arduradun: Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia - Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua.

3. Foru agindu hau Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusira eta Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira igortzea, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, bi mila eta hogeita bateko otsailaren hamazazpian.

LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNEKO, FUNTZIO
PUBLIKOKO ETA BARNEKO KONTSEILARIA

Javier Remírez Apesteguía
(Sinadura jatorrizkoan dago)